

IZAN GINELAKO GARA

Herria ezagutzen





IZAN GINELAKO GARA

Herria ezagutzen

Argitaratzailea: Arrasateko Udala. Hezkuntza Saila.

Egilea: Arrasateko Udaleko Hezkuntza saila,
"Hik Hasi" aldizkariarekin elkarlanean.

Ilustrazioak: Aitziber Alonso. Zumalakarregi museoaren album bateko grabatuan oinarritutako marrazkia da, 9. orriko marrazkia.

Diseinua:  zure balioen marka

Argazkiak: udal artxibategia (Zerrajera funtsa eta Paisajes españoles-debekatuta horien erreprodukzioa-), Valeriano Martinez (Biteri eskolak), "Arrasateko Emakumeak XX. mendean" liburutik bi argazki (Musakolako garbitokia eta azoka), Jose Letonak idatzitako "Zenbait ohar eta ibilbide turistikoa monumentalak" izeneko liburutik 3. orriko plana, AED-ko egutegitik 25. orriko argazki bat (Aprendizes eskolaren gelako argazkia-anonimoa-). 24. orriko argazkia C.C BY-SA Indalecio Oiangurenena da. www.gernika-lumo.net (Gernikako bonbardaketa). Gipuzkoako Foru Aldundiaren "Gure Gipuzkoa". Arrasateko Udaleko Hezkuntza saila.

Inprimatzailea: Gertu

LG: SS-1026/2010



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

hh
hik hasi


Non elkartzen dira Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia?

Izan ote da gerrarik gure herrian? Noren artean?

Lan arloari dagokionez, zure ustez Arrasate zergatik da ezaguna munduan?

Hirigintzaren ikuspegitik, gure Arrasatek ba al du nahiko lekurik kirola egiteko? Eta oinezkoentzat?

Begiratu XX. mendearen hasierako Arrasateri buruz, Jose Letonak egindako plano eta Biteri eskolak non zeuden kokatuko dituzu. Eskolak zeuden tokian, zer dago orain?



Hainbat gauza ikasten ari gara gure herriaz. Baina jakingo zenuke gure herria kokatzen?

- Debagoiengan?
- Gipuzkoan?
- Euskal Herrian?
- Iberiar penintsulan?
- Europan?
- Eta munduan?



Zientzialariek irudizko lerroak marraztu zituzten munduari, horizontalki eta bertikalki, puntu bat, gure herria adibidez, errazago kokatzeko.

Lerro horizontalei paralelo deitu zieten. Munduaren gerra 0 paraleloa da, Ekuatorea. Horrela esaten diote, Ekuatoretik igarotzen delako. Mundua iparraldea eta hegoaldea eremuetan banatzen du.

Lerro bertikalei meridiano deitu zieten. Ipar Burutik hego polora doaz eta 0 meridianoari Greenwich esaten diote, Ingalaterrako herri horretatik igarotzen delako. Ekialdea eta mendebaldea eremuetan banatzen dugu mundua.

Beraz, gure herriak lurreko gainazalean duen posizioa zehazteko, koordenatuak erabiltzen ditugu: latitudea eta longitudea.

LATITUDEA:

0 paraleloa (Ekuatorea) kontuan hartuta, iparraldera edo hegoaldera egongo gara. Gradutan neurtzen dugu eta iparrera edo hegora dagoen zehaztu behar dugu. 0°tik 90°ra neurtzen da.


LONGITUDEA:

0 meridianoa (Greenwich) kontuan hartuta, mendebaldera edo ekialdera egongo gara. Gradutan neurtzen dugu eta mendebaldera edo ekialdera dagoen zehaztu behar dugu. 0°tik 180°ra neurtzen da.

Hauk dira **Arrasateko koordenatuak**: 43° 04'15" ipar latitudean eta 1° 14'20" Greenwich meridianoaren mendebaldean.

- Hortaz, zein izango dira Ipar buruaren eta Hego buruaren latitudeak?

.....



Herrien kokapena zehatzago jakiteko, altuera da beste neurri bat. Baina, zelan neurtzen da hori?

Neurri horri itsas maila esaten zaio, itsasoaren mailarekin alderatuz kalkulatzen delako eta unitatea **msnm** da (gaztelaniazko "metros sobre el nivel del mar") .

Baina munduko itsaso guztiak ez daude maila berean, eta itsasoak, ez du maila iraunkorrik. Horregatik, herrialde bakoitzak bere erreferentzia itsasoa hartzen du leku eta garai zehatz baterako: Espainiak eta Frantziak Mediterraneo itsasoa dute.

Alacant-eko udaletxeko eskaileretako hirugarren mailan dago kokatua lehen puntua, eta hori da gure herriko altuera neurtzeko erreferentzia. Erdiko kale aldeko udaletxeko ataripean dago erreferentzia-iltzea gure herrirako: 214'8 metro; eta horregatik esaten dute plaza dela herriaren altuera erreferentzia.

- Herrian badaude iltze gehiago jarrita zoluan puntu horren altuera jakiteko. Baten bat ikusi duzu?
- Zure ustez, zein dago altuen, San Andres auzoa edo Musakola auzoa?
- Zergatik uste duzu?

ERLATIBOTASUNA

Mendien neurketa ere, duela urte batzuk aldatu zen. Esaterako, Udalatx mendiak 1.092 m-ko neurria zuen, eta orain 1.117 m. Anboto mendiak 1.295 m eta orain 1.315 m. Itxura denez, gaizki eginda omen zeuden, eta duela urte batzuk berriro egin zituzten. Beraz, erreferentziaren arabera da altuera.

DISTANTZIA

Arrasateren eta beste herri eta hiri batzuen arteko distantziak.

HERRIA	KM
ARETXABALETA	4
ESKORIATZA	7
ARAMAIO	6
BERGARA	10
ELGETA	11
OÑATI	11
LEINTZ GATZAGA	12
ANTZUOLA	13
GASTEIZ	35
BILBO	48
DONOSTIA	75
IRUÑEA	109
BAIONA	162
DONIBANE GARAZI	164
MAULE	210

Arrasatetik Maulera joateko nondik joan beharko genuke distantziarik motzena egiteko? Begiratu mapan eta azaldu zeharkatu behar diren probintzien izenak.



DENTSITATEA

Gure herriak 34'20 kilometro koadroko azalera du. Herrian, 2011n, 22.072 lagun bizi gara. Zenbatekoa da, hortaz, gure herriko dentsitatea?


Gogoratu dentsitateak adierazten duela kilometro koadroko zenbat jende bizi den.

Gure herriko dentsitatea 2011n:

KLIMA

- **Temperatura.** Klima ozeanikoa du; uda epela zein beroa eta negua, hotz handirik gabekoa. Udaberriak eta udazkenak motzak izan ohi dira. Azken urteotako tenperaturaren batez bestekoa 13'2 °C izan da.
- **Aldaketa klimatikoa**
Zure ustez, azken urteotan, asko aldatu da eguraldia? Hala baldin bada, zertan aldatu da?
.....
- **Euritea / hezetasuna**
Urtean hezetasun maila handia dago Arrasaten, eta historikoki urtarrila izaten da hilabeterik euritsuena, eta abuztua lehorrena.
- **Haizea**
Lau dira herrian jotzen duten haizerik garrantzitsuenak:
a) Mendebaldekoa.- Haize hezea, euria dakarrena.
b) Hegoaldekoa.- Beroa eta lehorra. Hego-haizea deritzona.
c) Ekialdekoa nahiz ipar-ekialdekoa.- Ipar Europatik datorrena. Hotza eta sikua. Ipar-haizea deritzona.
d) Hego ukitua duen neguko haize hotza: "Amillena".

- Hemen daukazu Arrasateko mapa. Eguzkiak ekialdetik irteten du eta mapan agertzen da non dagoen. Kokatu mapan gainerako puntu kardinalak.



BIDEAK

Hiru motako bideak zeuden lehen: herriak elkarren artean lotzen zituztenak, herriak haien auzoekin lotzen zituztenak eta baserri nahiz auzo inguruetakoa.

AUZOBIDEAK

Herri bateko auzotarrek beren lurretara, basoetara eta barrutietara doazen bideak dira, auzolanean zabalduak. Auzobideak auzotarrek eginikoak direnez, zenbait tokitan herribide izenez ezagutzen dituzte.

ZER DA AUZOLANA?

Auzoak egin behar komunak zituenez, behar horiei aurre egiteko sortu zen auzolana, hau da, hainbat etxek partekatzen zituzten beharrei aurre egiteko.

- Euskal Herrian nekazaritza munduan erabili da gehienbat eta oraindik hor dirau. Horrelako lanetara ez agertzeak elkartasunik ez izatea esan nahi du.
- Udalaren edo Biltzarraren kontura ziren ardoa, ogia eta beste janari batzuk, auzolanean parte hartzen zuten guztiei emateko.
- Gure artean, auzolanean, gauza asko egin dezakegu. Zure ustez, zeintzuk izan daitezke lan horiek?



.....

.....



- Bide mota asko egon da eta dago, bakoitzak bere funtzioarekin. Taldeak osatu, eta etxean edo lehengo baserri bati edo pertsona nagusiarri galdetuz edo Interneten ikertuz, ea zenbat bide izen aurkitzen duzun eta zertarako erabiltzen zituzten:

GURDIBIDEAK

Gurdietarako bide egokiak ziren zorua, neurri handi batean, harrizko harlauzaz egindakoa baitzen. Horrela, euria egiten zuenean gurpilak ez ziren lokatzetan hondoratzen eta garraio lanak samurragoak ziren.

BIDEAREN IZENA	ERABILERA



- Zer da gerra?
- Zelan sortzen dira?
- Zelan bukatzen dira gerrak?
- Non ikasi duzu gerrari buruz dakizuna?
- Zein gerra ezagutzen duzu?



Nortzuk galtzen dituzte gerrak, zure ustez?

.....



Hemengo zein berbak deskribatzen du gerra?

ILUNA, HERIOTZA, BELDURRA, GOSEA, NEGARRA, KARTZELA, DESERRIRATZEA

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Gerrako kontakizuna



GERRA HAUSNARREAN

- *Gerrarik onena baino hobe da bakerik txarrena.*
- *Gerra batean irabazteko modu bakarra da, gerrarik ez egitea.*
- *Gerra da giza buruaren asmakizuna.*
- *Gerra bakoitza da, giza izpirituaren hondamendia.*
- *Gerra nahi duenak, bakerik ez.*
- *Gerra egin behar bada, soilik egin dadila bakea lortzeko helburuarekin.*
- *Aberatsek gerra egiten dutenean, pobreak dira hiltzen direnak.*
- *Gerra da piztien okupazioa, gizakiene baino gehiago.*
- *Sekula santan ez zen izan gerra eta bake txarrik.*

Zein da zure iritzia?

.....

.....


.....

.....

.....

.....

Antzinatik, euskal lurraldeek erregek onartutako eskubideak zituzten: Foruak. Euskaldunek euskaldunen aurka borrokatu zutenean bereziki, fueroak defendatzeko izan zen.



LEHEN KARLISTADA (1833-1839)

Karlistak erlijioaren eta foruen alde zeuden; liberalak estatu-zentralismoaren alde.

Gerra hartan Zumalakarregi karlista ezaguna izan zen.

Bergarako hitzarmenarekin, (Oñatin sinatua), bukatu zen gerra, eta besarkadaren bidez berretsi zuten hitzarmena: bakearen truke, foruen errespetua eta militar karlisten graduak eta pentsioak mantentzea onartu zuten liberalak.

1839an foruekiko errespetua sinatu bazuten ere, 1841ean Aduanak Ebrotik Bidasoara ekartzea onartu zuten eta Nafarroa Garaiko erregimen forala bertan behera utzi zuten.

Industrializazio garaia hasi berria zen eta hiriburuetako merkataria eta jabe kapitalistak erabaki horren alde zeuden, Espainiako merkatuaren atea zabaltzen baitzitzaien.

BIGARREN KARLISTADA (1872-1876)

Hondamendi ekonomiko handia ekarri zuen gerra hark. Arrasateren kasuan bertatik pasatzen ziren tropei janaria eta jantziak eman behar zizkien, eta haien gehiegikeriak jasan behar izan zituzten.

Santa Kruz apaiza nabarmendu zen karlisten bandoan. Arrasate aldean harrapatu zuten liberalak, Aramaiora preso eraman, baina handik ihes egitea lortu zuen.

Gesalibarko bainuetxea gerrako zaurituak zaintzeko ospitalea izan zen.



CANOVAS DEL CASTILLOREN HERIOTZA

Gerra bukatu eta gero, Espainako presidentea Canovas del Castillok 1876ko uztailaren 21ko legearen bidez foruak ezeztatu zituen. Presidente hura, Arrasateko Gesalibarko bainutxean udaldia pasatzen ari zela, Angiolillok hil zuen 1897ko abuztuaren 8an.

Kontatzen dute, Txirrita bertsolari famatuak behin, Donostiako udaletxean (lehenago kasino), topo egin zuela Canovasen alargunarekin eta bi bertso bota omen zizkiola:

- Hemen daukazu lehenbiziko bertsoa. Bigarrena, topatuko zenuke?

*Il da Canovas, fuera Cánovas,
 Pikaro gaizki eziya,
 Galdu zituen gari-zelaiak,
 gallendu zaio sasiya;
 Galdu zituen ipar garbiyak,
 Gallendu trumoi nasiya,
 Galdu zituen fueroak eta
 Jaungoikuaren graziya,
 Galdu zituen bizi-lekuak,
 Galdu du bere biziya.*





- 1750ean altzairuaren industriaren gainbehera.
- 1826an 6 burdinola Arrasaten, 1856an bi burdinola.
- 1841ean aduanak Ebrotik Bidasoara ekarri zituzten.
- 1869an "Vergarajauregui, Resusta y Cia" fabrika sortu zen.
- 1873an 10 urtetik beherako haurrek lan egiteko debekua.
- 1889an trenen Leintz Gatzagaraino iritsi zen.
- 1894an Elektrizitatea jarri zuten Arrasaten.
- 1901ean "La Cerrajería Guipuzcoana" enpresa sortu zen.
- 1906an Union Cerrajera enpresa sortu zen.
- 1912an "La Asociación Obrera" eta "Sindikatu Profesionala" erakunde sindikalak sortu ziren Arrasaten.
- 1916an greba garrantzitsua (4 hilabete) ordutegia (10 ordu) inposatzearen aurka. U.Cerrajeran.
- 1917an UZ-ek zahartzaroko borondatezko aseguruua sortu zuen.
- 1917an "La Industrial Mondragonesa" eta "Ugarte y Cia" enpresak sortu ziren.
- 1919an ofizialki inauguratu zuten Vasco-Navarro trenen.
- 1919an "Solidaridad de Obreros Vascos".
- 1919. 8 orduko laneguna lortu zuten.
- 1924an "Elma" enpresa sortu zen.
- 1928an "Industrias Asam" sortu zen.
- 1931n ABC sortu zen.
- 1939an "Escuela de Aprendices" sortu zen.
- 1942an "Alejandro Altuna" enpresa sortu zen.
- 1943an Lanbide Eskola sortu zen.
- 1944an "IFAM" enpresa sortu zen.
- 1955ean "Ulgor" enpresa sortu zen.
- 1957an Talleres Arrasate kooperatiba industrialia sortu zen.
- 1958an "San Jose Kooperatiba" sortu zen. Gero Euskal Herriko bost kooperatiba gehiagorekin Comercio/Eroski sortu zuten 1969an.
- 1959an "Caja Laboral" sortu zen.
- 1967-12-31n kendu zuten trenen .
- 1970ean "Fagor Garagartza" sortu zen.
- 1974an "Ikerlan" kooperatiba sortu zen.
- 1980ko hamarkadan krisia. "Tijeras" eta "Limsa" desagertu ziren.
- 1988an "UC"ko Bergara eta Arrasateko lantegiak banandu ziren.
- 1989an "Astore" sortu zen.
- 1991n "Mondragon Corporación Cooperativa" sortu zen.
- 1995ean "UC"ko instalazioak langileen esku.
- 1997-2005. "UC"ko instalazioak eraitsi zituzten.
- 2000ko hamarkadaren hasieran "Garaia Berrikuntza" zentroa sortu zen.
- 2007an "Roneo" desagertu zen.
- 2008an.EEBB eta Europako krisi finantzario eta ekonomikoaren hasiera
- 2009, 2010, 2011, 2012an... Krisia.
- 2013an Fagor Elektrotresnak kooperatibak ordainketa etendura aurkeztu zuen.
- 2014an Cata enpresak 42'5 milio € ordainduta ,Fagor E.ren aktiboak erosi zituen.

UNION CERRAJERA

1906an "La Cerrajera Guipuzcoana" eta "Vergarajauregui, Resusta y Cia" elkartu ziren "Unión Cerrajera S.A." sortzeko. Hainbat urtetan herriaren bizimodua, ekimenak eta geroa garatu zituzten enpresa horren inguruan.

- Ba dakizu Union Cerrajera enpresa funtzionamenduan ote dagoen?



LAN-BALDINTZAK

Unión Cerrajeran XX. mendearen hasieran asteko jarduna 73,5 ordukoa zen (3.600 ordu urtean), eta larunbatetan ere lan egiten zuten.

- Gaur egun, urtean zenbat ordu egiten dute lan langileek?



1916an Union Cerrajeran historian izan den grebarik luzeena (lau hilabete) gertatu zen, Zuzendaritzak lan-ordutegi berria, 10 ordukoa, ezarri nahi zuelako. Langileak lanera itzuli ziren, baina 31 langile kanporatu egin zituzten.

1919an, borroka gogorraren ondoren, 8 orduko laneguna lortu zuten langileek.

- Emakumeek gizonek baino soldata askoz baxuagoa zuten, lan antzekoa egin arren. Zuen gurasoen lantegietan berdin irabazten dute gizonek eta emakumeek? Zeren arabera daude soldata desberdinak?

- Gaur egun, urtean langile asko hiltzen da lan istripuetan, baina zure ustez zelakoak dira langileen bizi baldintzak?

- Historikoki, arrasatearrei "zerrajeroak" esan digute. Zergatik uste duzu dela?

1873an dekretuz debekatu zuten 10 urtetik beherakoak lanean aritzea, baina agindua ez zuten betetzen. Geroago, lantegietara sartzeko adina 14 urtean jarri bazuten ere, normala zen 1930ean 10 eta 12 urteko gazteak, gehienak mutilak, lantegietan ikustea, eta helduen ordutegia izaten zuten.

- Zergatik uste duzu lan egin beharko zutela?
 - Etxean diru-beharra zutelako.
 - Eskolara joan nahi ez zutelako.
 - Gastuetarako dirua edukitzeko.
- Gaur egun, munduko hainbat tokitan adin horrekin haurrek lan egiten dute. Zer dakizu horri buruz?



- Nagusia izatean, zein ogibidetan lan egin gura izango zenuke?

- Gaur egun, zein produktu ekoizten ote da Arrasateko lantegietan?



Altzairua, sarraillak, *"Yale" sarrailla*, **giltzarrapoa**, **artilleriako bonbak**, **abio bonbak**, gerra materiala, **ikatz plantxa**, **maratilak**, **krisketak**, **bisagrak**, **heldulekuak**, *zaldientzako bokadoak*, **estriboak**, **itsulapikoak**, **burdinazko palak**, **automobil eta kamioi gurpilak**, **taladroak**, **tornoak**, *ikatzza*, **butano bonbonak**, **estufak**, **gurdi-ardatzak**, **buzoiak**, **bimetala**, **bulegoko altzariak**, **aulkiak**, **koilarak**, **sardexkak**, **zartaginak**, **kateak**, **jostailuak**, **ehogailuak**, josteko makina (jostailua), **"Roneo" hozkailua**, **"Maite" sukaldea**, **"Aladdin" berogailua**, **"Dorothy" berogailua**, **"Nuevo sueño" eta "Victoria" sukaldeak**, **hozkailuak (bi atekoak)**, **ikuzgailuak**, **sukaldeko altzariak**, **kirol jantziak**, **giltzak**, **robotak**, **prentsa hidraulikoak**

- XX. mendearen hasieran Union Cerrajera enpresaren langileen % 10 - % 20 emakumeak ziren eta herriko beste lantegietan ere lan egiten zuten.

Gizonezkoei baino diru gutxiago ordaintzen zieten eginiko lanengatik. 1909-1915 urteen artean gizonen soldatak egunean 3-4 pezeta (0'018-0'024€) artekoak ziren, emakumeek 1'5 pezeta (0'009€) irabazten zuten eta gazteek 1'25 pezeta (0'0075€).

Lantegiko 12 orduko lana egiteaz gain, etxeko lana egiten zuten eta, hortaz, jendarte haren euskarririk sendoena ziren.



Emakumeek gutxietsi eta baztertuta zeuden lantegietan.

Frankismoak (1939-1975) emakumearen papera etxeko lanetara eta zaintza-lanetara mugatu zuen, eta lan-mundutik baztertuta gelditu zen.

- Garai hartan, emakumeak nolakoak izan behar ziren jakiteko, gidako testua entzundakoan, zein iritzi duzue emakume eredu horretaz?

Lanbide ikasketei buruz, 1958an, nesken lehen promozioa hasi zen ikasten Eskola profesionalan, delineazio espezialitatean.

1969an emakumez osaturiko lehenbiziko kooperatiba bat sortu zuten Arrasaten eta estatuan, Auzo-lagun izenekoa.

1974an Ulgor kooperatiban lehenbiziko aldiz greba egin zuten, hainbat kategoriaren jaitsieraren kontra, eta emakumeen parte-hartzea nabarmena izan zen, emakume gehienek katean lan egiten zutela-eta. Langile ugari kaleratu zuten eta haietatik bi heren emakumeak izan ziren.

Osatu taula, azterketa egiteko.

	LANA ETXETIK KANPO		ZEIN ARLOTAN?
	BAI %	EZ %	
GURE AMANDREEK			
GURE AMEK			
GUK			

KOOPERATIBAK

1956an, Union Cerrajera enpresako langileak ziren Luis Usatorrek, Jesus Larrañagak, Alfonso Gorroñogoitiak, Jose Maria Ormaetxeak eta Jabier Ortubaik beraien kontura lanean jartzea erabaki zuten eta Jose Maria Arizmendarretaren laguntzarekin ULGOR enpresa sortu zuten.



“Maite” sukaldeak eta “Aladdin” berogailuak izan ziren merkaturatu zituzten lehenbiziko produktuak. Berogailuaren prezioa 1.575 pezetakoa (9´46€) zen.

Ulgor Kooperatiba enpresaren estatutuak onartu zituzten 1959an, haietariko batzuk: pertsona bakoitzak boto bana, bazkideek ekarritako kapitalak interes finkoa jasotzea, etekinak izanez gero eta soberakinak bazkideen artean banatzea, egindako ekarpenaren proportzioan.

- Gaur egun, munduan ezagunak dira Arrasateko kooperatibak, baina zuk zeintzuk ezagutzen dituzu?



Arlo askotan sortu dira enpresa kooperatibak, baina zure ustez zeintzuk dira kooperatibek dituzten alde onak eta alde txarrak, gainerako lantegiekin konparatuz gero?

ALDE ONAK	ALDE TXARRAK



1
Tijeras

2
Abc

3
Polmetasa

4
Moldcam

5
Eskatu

Unión Cerrada

R...



Gasolinazko kotxea Karl Benzek asmatu zuen 1885an.

ERREPIDEA						ESTOLDERIA	ARGITERIA	UDAL HILTEGIA	BITERI ESKOLAK
1780	1780-1866	1958	1990	2004	2009	1906	1894	1902	1902
Arlaban Arrasate Bergara Behobia	1780.Arrasate-Kanpanzar-Elorrio(berria) 1780.Arrasate-Kanpanzar-Elorrio(zaharra)	Gasteiz Ondarroa (Garibaitik)	Arrasateko saihesbidea	Autopista Arrasatera iristen da Bergaratik	Autopista Arrasate-Gasteiz		Kale argia elektrikoa		Eskolak

XIX. mendearen amaieran industrializazio-prozesua abian zegoen Arrasaten eta modernizazio bidea zabaldu zen mundutik zetozen teknika berriekin. Arian-arian, hortaz, argia, ura eta telefonoak joan ziren jartzten herrian. Modernizazio uhin hartan Union Cerrajerak eta Pedro de Viteri Arana filantropo arrasatearrak sekulako garrantzia izan zuten. Biztanleen hazkunde handia gertatzen ari zen eta azpiegiturak hasi ziren jartzten herrian.

- **ARGITERIA.** Tomas Alva Edison-ek 1879an lanpara gorria asmatu zuen. Union Cerrajerako sarrailagintzarako ekarri zituzten lehenbiziko elektroindarrezko argia eta herriko argiak jarri zituzten 1894an.
- **TELEFONOA.** Alexander Graham Bellek telefonoa asmatu zuen 1876an. Union Cerrajerako Zaldibarko eta Aretxabaletako lantegien artean instalatu zituzten telefono lineak 1894an.

Mende bat geroago, etxeetan, poltsikoetan (sakelakoak, smartphone, tableta, Internet) ditugu. Urte batetik bestera aldaketa gehiago eta bizkorrago.

Zuk, ziur asko, ez duzu izango sakelako telefonorik, baina zure gurasoek zer dute eta nola erabiltzen dituzte gailu horiek?

BITERI ESKOLAK. Pedro de Viterik 1893an, Arrasatera itzuli zenean, alkatearekin hitz egin ostean, hark proposatu zion eskolak egitea. 1902an zabaldu ziren eta harrezkero herriko familia xeheko umeei aukera izan zuten eskolara joateko.

Urte batzuk barru, herentziaz edo loteriarik egokituko balitzaizu eta aberats bihurtuko bazina, diru hori zertan gastatu zenuke? Jendarteari laguntzeko erabiliko zenuke?

UDAL HILTEGIA. 1902an zabaldu zen.

ESTOLDERIA. 1906an.

Garbigailua 1901an Alva Fisherrek asmatu zuen.

URA				AZOKA		FRONTOIA	TELEFONOA
1879	1896	1906	1956-58	1986	1900	1971	1900
Altamiratik Ur ekartzea	Meatzerrekatik Ura ekartzeko lanak	Zarugaldeko garbitegi publikoa	Urbaltz eta Bolibar iturburu gehikuntza	Urkuluko urtegitik	Azoka (Gaur Seber Altube)	Mondragones kalekoa	1894

URA. 1896an ura etxeetara ekartzeko lanak hasi zituzten eta mendearen hasieran garbitegi publikoak egin zituzten. Garbigailuak gure etxeetan XX. mendeko 1960ko hamarkadan hasi ziren jartzten. Garbigailua izango ez balitz, nola irudikatuko zenuke gaurko bizimodua?



Argazkia: "Arrasateko Emakumeak XX. mendean" liburuan.

IGOGAILUAK. Herrian etxeorrazak egin artean ia ez zegoen igogailurik. Esaterako, 1968an Musakolan bakarra zegoen, Erdialdean pare bat edo eta gainerako auzoetan bakanen bat, Arrasate pasealekuan... oraindik ere lehengo etxeetan igogailuak egiten ari dira eta, etxe berri guztiek igogailua izan behar dute.

- Lehen, igogailurik ez zegoenean, jende nagusiak zer-nolako bizimodua eramango zuen etxean?

AZOKA. Pedro de Biterik jarritako diruarekin 1900ean azoka, burdinazko eta kristalezko egiturekin eraiki zuten. Baina 1971n bota zuten, eta berria egin zuen Udalak.

Lehen baserritarrak astoekin jaisten ziren herrira eta astoak uzteko tokiak zituzten. Gaur egun, azoka erabiltzeaz gain, hileko 3. astean Arrasateko baserritarrek, zapatuetan, azoka egiten dute.


- Zure gurasoek non erosten dituzte elikagaiak, denda txikietan, azalera handiko dendetan edo herriko azokan?



Argazkia: "Arrasateko Emakumeak XX. mendean" liburuan.

UDAL FRONTOIA. 1900ean eraiki zuen Udalak bere diru-baliabideez.

- XX. mendeko 1980ko hamarkadara arte herrigunea eta auzoak industriez beteta zeuden, etxeak, lantegi handiak, lantegi txikiak, zelaiak, hiritartu gabeko lurak....nahasten ziren.



- Arian-arian, lantegiak herrigunetik eta auzoen barrutik ateratzen joan dira herriko industrialdeetara. Lantegiak egon ziren orubeetan etxeak eta berdeguneak egin dituzte eta zenbaitetan lantegien izenekin kale berriak bataiatu dira.



- Hemen dituzu bi argazki: goikoa, 1959koa, eta behekoa, 1977koa. Bi argazki horien inguruan saiatu zaitez ahalik eta informaziorik zabalena jasotzen ondoko galderari erantzuteko. Argazkietan agertzen diren lantegietako lursailetan, zer dago gaur egun?

Joan zen mendeko 1960ko eta 1970eko hamarkadeetan lantegietan langileen eskari handia izan zen eta haientzat etxeak eraiki behar izan zituzten. Denbora laburrean auzo berriak sortu ziren landa eremuetan eta herriaren ikuspegia eradaltzen joan zen. Hiritartu gabeko gunek ziren, zerbitzu gutxirekin hornitutakoak eta zerbitzu gehienak herrigunearan zeuden. Biztanleria handitu zen nabarmen eta horrek arazo ugari eragin zuen. Begiratu 1881 eta 1986ko errolden bilakaerari:

1881.URTEA	BIZTANLERIA	1986.URTEA	BIZTANLERIA
ERDIALDEA	1.502	ERDIALDEA	6.926
SAN ANDRES	165	SAN ANDRES	4.717
MUSAKOLA	197	MUSAKOLA	3.219
ZALDIBAR	149	MAKATZENA/SANTAM	3.688
URIBARRI	237	URIBARRI	6.066
UDALA	119	UDALA	2.065 (912 PERTSONA PSIKIATRIKOAN)
GARAGARTZA	291	GARAGARTZA	
MEATZERREKA	169	MEATZERREKA	
GESALIBAR	160	GESALIBAR/BEDOÑA	26.681
GUZTIRA	2989		

1956 eta 1960 urteen artean 407 etxebizitza entregatu ziren eta 300 zeuden bukatzeak.

1961. urteko argazkia da. Musakola auzoko lehenbiziko etxeak. Gaurko egoerarekin konparatuta zenbat etxebizitza falta dira? Kirodegiko eta Mojategiko instalazioak non daude egun?

.....

.....

.....



Auzo berriak egin zituzten herrian, etxebizitzak eraikiz eta zerbitzuak arian-arian ipiniz.

- Zenbat etxebizitza ditu bizi zaren eraikinak?

- Zein zerbitzu daude zure auzoan?

Zenbat etxeorrazt daude herrian?

- Industrialdeak herriaren kanpoaldean kokatu dituzte; zure ustez plangintza hori egokia da?



Euskal herria herri migrantea izan da. Industrializazioa hasi aurretik herritar askok Ameriketara alde egin behar izan zuten lan bila. Gerra garaian, erbestera familia osoek joan beharra izan zuten. Trena 1918an iritsi zen Arrasatera eta garai hartan kanpotik etorritako langileak etorri ziren. Geroago, XX. mendearen 1950eko eta 1960ko hamarkadetan, Nafarroatik eta Espainatik etorri ziren: Andaluziatik, Extremaduratik, Gaztelatik. Urte gogorak pasatu zituzten baina gaur belaunaldi askok bere bizimodua Euskal Herrian sustraitu dute honezkero.

2008-02-01


KOLONBIA	134
PORTUGAL	120
BOLIVIA	72
EKUADOR	64
MAROKO	42
DOM. ERREP.	42
PAKISTAN	30
TXINA	27
ERRUMANIA	24
BRASIL	18
KUBA	16
PERU	13
VENEZUELA	13
BRITAINIA H.	12
ITALIA	11
HONDURAS	10
ARGENTINA	8
FRANTZIA	8
ALEMANIA	5
TXILE	5
POLONIA	5
ALJERIA	4
IRLANDA	4
PARAGUAI	4
UKRAINA	4
URUGAI	4
BULGARIA	3
HERBEHEREAK	3
AEB	2
MEXIKO	2
TURKIA	2
ANGOLA	1
AUSTRALIA	1
BANGLADESH	1
BELGIKA	1
ESLOVENIA	1
INDIA	1
JAPONIA	1
LIBERIA	1
MAURITANIA	1
ERRUSIA	1
GUZTIRA	721

Etazkeneko hamar urteotan zer gertatzen ari da?

Osatu estatuz kanpoko atzerritarrek zenbat ziren eta diren ehunekotan.

URTEA	MIGRANTEAK	BIZTALERIA	%
2002	199	23.061	
2004	356	22.597	
2006	471	22.112	
2007	585	21.965	
2008	721	22.061	
2011	1056	22.071	

Osatu grafikoa goiko datuekin. Ea nolako marra ateratzen den.



Herritarren jatorriari buruz egin duten datu-bilketaren antzekoa egin dezakezu zuk ere. Hiru belaunaldi azter ditzakezu.

	HERRIAN JAIOTAKOAK	KANPOAN JAIOTAKOAK
GU	%	%
GURASOAK	%	%
AITAJAUNAK-AMANDREAK	%	%

Non jaiio zarete zuek?



Beste herri batzuetatik etorri diren pertsonak informatu, hezi eta lagundu behar ditugula jabetuta, Ekin Emakumeen euskara elkarteak abian jarri zuen harrera proiektu bat haiei laguntzeko. Horren barruan Kulturartekotasun jaialdia antolatzen du urtero, pertsona horien nazioen kultura, musika, gastronomia ezagutarazteko. Aberatsa da beste herritar batzuen ohiturak ezagutzea.

- Ezagutzen duzu pertsonak biltzen dituen elkarterik? Eta nongo lagunak biltzen dituzte?

- Imaginatu ezazu beste herrialde batera joan behar duzula bizitzera. Zelan nahi izango zenuke harrera egitea herri horretan?

- Zer eramango zenuke emigratzen baduzu? Zer uste duzu sentituko zenuela bizitzen hasten bazara beste herrialde berri batean? Zeren falta sentituko zenuke? Zeren hutsunea igarriko zenuke?



Akaso, topatuko zenuke norbait herri berria erakutsi eta bertakoak nolakoak diren adieraziko lizukeena. Eta zuk, zer erakutsiko zenioke etorri berri bati?



Zein toki erakutsiko zenizkioke?



Horrelakoa da gure herria eta horrelakoak gara gu herritarrak.



- XIX. mendearen bukaeran eskolatzea Elizaren esku zegoen eta Gipuzkoako biztanleen erdia eskolatu gabe zegoen. Giro horretan Pedro de Viteri Arana arrasatearrak (1833-1908) ekarpen handia Gipuzkoari eta Arrasateari hezkuntza arloan egin zien.

Familiaren ondarea heredatu zuen eta dirutza hori guztia hezkuntza sustatzeko erabili zuen. Horretarako, **Arrasateko eskolaz gain, Gipuzkoa osoan eskola ugari sortu zuen (Donostiako Gros auzoan, Hernanin, Irunen, Pasai Antxon, Pasai Donibanen, Erreterian, Urnietan, Hondarribian eta Aretxabaletan).**

Eskola horietako **lehen Arrasaten sortu zuen 1902an**, eta **Fundazio** bat sustatu zuen 200.000 pezetako (1.202,02 euro) diru kopuruarekin.



Argazkiak: Valeriano Martinez



Argazkiak: Valeriano Martinez

- Hiru irakasle horietako bi izan ziren **Felix Arano, mutilen irakaslea, eta Teresa Garcia, neskena. Horiek irakasten erabiltzen zituzten metodoekin irauli eta berritu egin zuten hezkuntza-arloa.** Eskola haien hezkuntza-proiektua pertsonengan oinarritu zuten eta ez garai hartan ohikoa zen bezala erlijioan. **Eskola laikoa izan zen, neska eta mutikoentzat doakoa**

- Badakizu non dagoen Pedro de Viteriri eskainitako estatua Arrasaten?

.....

- Badakizu Arano pasealekua non dagoen?

.....



C. C BY- SA. Argazkia: Indalecio Oianguren

APRENDICESEN ESKOLA

1939an, Union Cerrajerak "Escuela de Aprendices" sortu zuen industria maisutza ikasketak egiteko eta mutilak lan-mundurako prestatzeko.



Argazkia:2011ko AEDren egutegia-anonimoa-

ESKOLA PROFESIONALA

Eskola Profesionalak hogeii ikaslerekin hasi zuen bere ibilbidea Biteri fundazioaren lokaletan, Jose Maria Arizmendiarraren bultzadarekin. 1943an sortu zuten, 1968an injinerutza ikasketak emateko baimena lortu zuen eta egun, Mondragon Unibertsitatearen kanpusean dago.



Badakizu frankismo aroa (1939-1975) ia bukatu arte, eskoletan mutilak eta neskak bananduta jasotzen zutela eskola? Zer iritzi duzu horretaz?

.....

.....

Eta eskola ezin zuten euskaraz eman.1968an euskaraz emateko legea onartu bazen ere, eskola gehienek gaztelaniaz ematen zituzten. Zergatik ote zen horrela?

.....

.....



 Denboraren joanean arrasatearrak hezi dituzten eskolak.

Mesedetako Andra Mari Ikastetxea (1892), *Escola Txikia* (1900),
 Biteri Eskola (1902), *Zarugaldeko Eskola*, *Marraketa Eskola* (1911),
Musakola Eskola Unitarioa (1923), *Gazteluondo Eskola* (1931),
Gesalibar, Garagartza eta Bedoñako Eskolak (1931-1936),
 Abadetxea / Maalako Err.-Kristau Ikastola (1932), *Aprendices Eskola*
 (1939), San Jose / C.Bolibar (San Viator) (1938), *Eskola Profesionala*
 (1943), San Antolin Eskola (1960), *Kontzeziño Eskola*, *Asuntzio Eskola*,
San Frantzisko Xabier Ikastola (1967), Santa Teresa Eskola (1968),
San Viator Ikastetxea (1969), *Mesedetako Andra Mari (Santamarina)*
 (1969), *San Andres Eskola* (1970), *Uribarri Eskola*,
Umezaintza Haurtzandegia (1970), *Dorletako Ama Ikastetxea/Almen*
Ikastola (1970), *Arrasate Institutua* (1976), *Erguin Eskola* (1981),
San Biator Ikastola (1984), *Uribarri Ikast.* (1985), *Olarte Ikast.* (1987),
Helduen Hezkuntza Iraunkorra (1988/2011), *Mondragon Unibertsitatea*
 (1997), *Udal Haur Eskola* (2000), *Arrasate Herri Eskola* (2002),
Arizmendi Ikastola (2003), *Bedoñabe Haurreskola* (2004),
Musakola Haurreskola (2010)



Arlo horien barruan, zer da ondoen ikasi duzuna?

• HERRIAREN KOKAPENA:

.....

• GERRA:

.....

• INDUSTRIALIZAZIOA:

.....

• KOOPERATIBAK:

.....

• AZPIEGITURAK:

.....

• JENDE TALDEAK:

.....

• HEZKUNTZA:

.....



Arlo horien barruan, zer da gutxien ulertu duzuna?

• HERRIAREN KOKAPENA:

.....

• GERRA:

.....

• INDUSTRIALIZAZIOA:

.....

• KOOPERATIBAK:

.....

• AZPIEGITURAK:


.....

• JENDE TALDEAK:

.....

• HEZKUNTZA:

.....





IZAN GINELAKO GARA

Herria ezagutzen

1. Izan ginelako
2. Errementarien zalapartapean
3. Handitzen-handitzen
4. Gure altxorra
5. IZAN GINELAKO GARA
6. Ekin eta ekin



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

hh
hik hasi

di·da zure balioen marka

www.arrasate.eus